

AITITAMAMAK KURUTZEAREN AURREAN

1

Hemen gaukazuz, Jesus maitea,
Zure aurrean apalik,
Zeu zaitugula hor kurutzean
Gure zain beso zabalik.
Aitak bialdu zinduzan, Seme,
Gu ikusita makalik,
Errukarri dan batentzat ez da
Inun holako magalik.

2

Urte askotan izan zaiataz
Kontu hartzeko jueza,
Bizian Gorak eragin eustan
Zorioneko amesa:
Aitatxo ona zaitugula ta
Hasarretuten nekeza,
Hauxe da pena, egi eder hau
Lehenagotik jakin eza!

3

Aitarengandik etorri zinan
Oi Jesus, gu salbatzera,
Bizira deika ibili zinan
Eskeiniz mila aukera.
Azken batean osorik emon
Zure bizia berbera:
Gu bizitzeko, Zuk hil beharra,
Ama on baten antzera...

4

Seme bakar bat izanda, Bera
Gu salbatzera bialdu,
Eta Zuk, Jesus, kurutze baten
Biziaren truk salbatu.
Hau jakiteak begi-bihotzak
Batera deustaz zabaldu:
Zuk horrenbeste eginda gero,
Zelan leiteken bat galdu!

5

Horrenbestean maite ginduzun,
Hortik zure hil-beharra;
Egiten danaz erakusten da
Maitasunaren indarra.
Jesus maitea, biztu niregan
Zureganako sugarra,
Gaurtik aurrera izan zaitez
Zeu nire bizi bakarra.

6

Hor kurutzean gora igonda
Maixu on baten antzera,
Zenbat kostata salbatu nozun
Benetan erakustera.
Zeu zaitut lagun zahartzarorako,
Zatoz laster laguntzera;
Kurtz ondoan alkartzen gara
Zu eta biok batera.

7

Poz ta adorez betetzen nozu
Kurutzearen oinetan,
Ez naz bakarrik sentitzen orain
Bideko nekeminetan.
Zeugaz batera iraun gura dot
Kondizino bardinetan,
Gero zeruan Zeugaz batzeko
Betiko atseginetan.

8

Gaur bedeinkatzen zaitut, oi Jesus,
nahizta ukatu behinola,
pekatariok Zugan daukagu
salbazinoko kaiola.
Aitari deika gutzat parkeske,
Borbor odol-dariola...
Zu kurutzean zaitugu egiz:
Gure Maixu ta Eskola.